



# ELKARTASUN JAIALDIA - RWANDA

Elkartasun astearen inguruan urtero Areria Kultur Gunean jaialdia ospatzen dugu eta, era honetan, beste hainbat ekintzekin batera, Lazkaoko Rwandako taldeari Ghiarako herrian egiten dituzten lanetarako sosak biltzen laguntzen diegu.


ABENDUAK 16 ostirala		
	IKASLEAK	HASIERA
1. SAIOA	HH 5	17:30etan
2. SAIOA	Beste guztiak	18:00etan

Ondoren, kontutan izanik parte hartzaile kopurua geroz eta handiagoa dela eta segurtasun neurriengatik Areria Kultur gunearen edukiera errespetatu behar dugula, jarraitu behar diren hainbat ohar ematen dizkizuegu:

- **HH5eko ikasleak 17:00etan** Arerian egon beharko dute eta **beste ikasleak 17:30etan**.
- Aldez aurretik **HH5eko** ikasleei **2 sarrera** emango zaizkie doan eta **besteei sarrera 1** ikasleko.
- **HH5eko** saiorako **16:45etan sarrerak salgai** jarriko dira **2€tan** Areriako leihatilan (**pertsona bakoitzeko 2**) eta **2. saiorako EZ DAUDE SARRERAK SALGAI JARTZEKO**.
- **Abenduaren 15en, goizeko 10:00etan, HH5eko ikasleek ezik, beste guztiak beraien emanaldia inguruko ikastetxeko ikasleei eskainiko diete NOLEGA programaren barruan. Zuetako norbaitek egun honetan bertaratu nahiko balu leihatila 09:30etan irekiko da sarrerak erosi ahal izateko. Emankizuna amaitu arte ezin izango da aretotik irten.**
- **HH5eko saioa amaitzerakoan** Arerian dauden **ikus-entzule guztiak kanpora** irtengo dira atzeko atetik.
- **Haurra magalean eduki behar baduzue**, kontutan izan pertsona heldu bat bezala kontatzen dela aretoaren edukiera osatzerakoan. Hortaz, ondoko eserlekua berea da eta ticketa behar du.
- **Bigarren saioan parte hartzen duten ikasleak aretotik irtengo dira** beraien funtzioa amaitzerakoan. Txikienen kasuan soilik, LH2, gurasoak emanaldia ikusten ari badira, beheko aretoan zainduko ditugu ikuskizunak irauten duen bitartean. **Aretorik irteten denak ez du bueltatzeko aukerarik izango, ikasleei eta ikusleei zor zaien errespetuagatik.**
- Saio bakoitzean Ikastolaren logoa duten **poltsak** pasako dira Ghiarakoei lagundu ahal izateko **sosak bitzeko** asmoz.

*Nahiz eta jakin ikasleen hainbat senide eta lagun emanaldia ikusteko aukerarik gabe geratuko dela hau izan da jaialdia antolatzeke aurkitu dugun erarik onena. Hortaz, eta gure arrazoiak ulertzen dituzuelakoan, jaso ezazue gure agurra eta esker ona.*

IKASTOLA



# ELKARTASUN JAIALDIA - RWANDA

Coincidiendo con la semana de la solidaridad todos los años celebramos un festival que, junto a otras muchas actividades, nos ayudará a recaudar fondos para que el grupo Rwanda de Lazkao pueda ayudar al pueblo de Ghiara.

16 de diciembre, viernes		
	ALUMNOS/AS	HORA DE COMIENZO
1ª ACTUACIÓN	HH 5	A las 17:30
2ª ACTUACIÓN	Resto de alumnos/as	A las 18:00

A continuación, teniendo en cuenta que el número de participantes es cada vez mayor y que por medidas de seguridad debemos de respetar el aforo del recinto Areria, os hacemos llegar algunos avisos:

- Los alumnos/as de **HH5** deberán estar **a las 17:00** en Areria y el **resto a las 17:30**.
- A cada alumno/a de **HH5** se le **darán gratis 2 entradas** antes de la función y al **resto 1 entrada** por participante.
- Para la función de los/as alumnos/as de **HH5** se pondrán **a la venta entradas a 2€ (2 por persona)** en la ventanilla de Areria, a las **16:45** Para la **2ª actuación NO QUEDAN ENTRADAS PARA LA TAQUILLA**.
- **El jueves 15 de diciembre, a las 10:00 de la mañana, exceptuando a los de HH5, los demás actúan dentro del programa NOLEGA ante alumnado de otras escuelas. Para quien quiera asistir las entradas se pondrán a la venta a las 09:30 en ventanilla y no se podrá abandonar el recinto hasta el final.**
- Al **finalizar** la actuación de **HH5 todos los alumnos/as y espectadores/as desalojarán** el recinto por la puerta de acceso a la parte trasera del edificio.
- Aunque algunos/as niños/as **se sienten en el regazo** de sus responsables cuentan como uno/a más a la hora de contar el aforo. Por lo tanto, le corresponde el asiento de al lado y necesita ticket.
- Los **alumnos/as de la 2ª actuación abandonarán Areria en cuanto termine su función. Sólo en el caso de los más pequeños (LH2)** tendrán cuidadores en el caso de que sus responsables estén viendo el festival. **La persona que abandone el recinto con anterioridad, no podrá regresar al mismo por el respeto que merecen los participantes y demás espectadores.**
- **En cada una de las actuaciones se pasarán las bolsas** que tienen el logo de la Ikastola con el objetivo de **recaudar fondos para ayudar a los niños/as de Ghiara.**

*Aunque sabemos que algunos de los familiares y amigos de los alumnos/as participantes no podrán ver la actuación es la mejor manera que hemos encontrado para organizar el festival. Por lo tanto, con la certeza de que entendéis nuestras razones, os hacemos llegar nuestro saludo y agradecimiento de antemano.*